

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Felisa Basauri Larrañaga*

*Elgeta,  
Gipuzkoa  
(1928-2018)*

Aurkibidea



## Biografia



Aixola Erreka auzoko Aixola baserrian jaio zen, aitaren bigarren ezkontzako bost seme-alabatatik gazteena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Bergarako Angiozar auzoko Errotatik etorritakoa. Sei urterekin hasi zen eskolan "Unión Apostólica"ko mojekin. Gerraostean eskola publikora joan behar izan zuen, baina mojen eskolan bukatu zituen ikasketak. Etxean egon zen ezkondu zen arte; esnea eramaten zuen egunero Eibarrera astoarekin, eta bezeroei banatu. Baserriko lan guztietan hartzen zuen parte, eta baita etxeko lanetan ere. Felisak lehengo ohitura zahar askori buruz ematen ditu azalpenak. Aixolako urtegiaren urpean geratu ziren baserriak gogoratzen ditu. Kalera ezkondu zen Zabaleta baserriko Antonio Alberdirekin. Alaba bat izan zuten.

## Zintak

### ELG-059

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-27
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Mañarikua, Maitena - Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. Bigarren ezkontzako bosgarren umea izan zen

- **Erref:** ELG-059/002
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:01:11. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

<p>Aita bost ume zituela alargundu zen. Felisaren amarekin ezkondu zen eta beste bost ume izan zituzten, gazteena Felisa. "Ogi nagusikoa" eta "ondra bazkaria" zer ziren azaltzen du.</p>

### Transkripzioa

-Ta nere aitta zan alarguna, ta nere ama solteria ta nere aittak eukazen bost seme-alaba.

-Aurretik?

-Aurretik. Ta ezkondu zan nere ama harekin, ta gero beste bost seme-alaba euki zittuan horrekin.

-Bost ta bost hamar.

-Hamar. Ta gure amak esaten oskun alargunakin nahi bagiñuan ezkondu, ba, alargunakin ba bai, baiña umedunakin ez ezkontzeko. Badakitzu lehen ezkontzak itten zian, ba, gurasuak-eta itten zittuen zerak eta harek be, ba, gurasueandik han zertu ta hantxe daola ta... bueno.

-Bai komenientziako zerak.

-Bai, ezkontziak. Ta hori esaten oskun amak.

-Alargunakin, umedunakin ez.

-“Alargunakin nahi bozu ezkondu, bai, baiña umedunakin ez zaittie ezkondu”. Porke lehen bost ume; gero beste bost euki zittuan, ta badakitzu. Ta, gaiñera, berak esaten ebana, berak danei igual eitten otsela beran ustez, baiña pentsatzen ebela berenei hobeto eitten ete dotsen.

-Normala, ezta?

-Normala, ba, ez dakit, berak esaten eban danei eitten otsela berak antzera, baiña... ez dakit /eztakit/ ba.

-Zu zeu zenbagarrena izan ziñan?

-Azkena ni.

-Gaztiena?

-Gaztena. Izan giñan zazpi aizta ta hiru anai.

-Ta zuk benetako anaiak [...]?

-Bi anai benetakuak. Benetakuak ba... bai, aitta batenak. Anaiak bi, ta hirugarrena, ba, maiorazkua. Orduan maiorazkua esaten zan.

-A! Zerak esan ostan, honek, e... Mirenek, Miren Billarrek “ogi nagusikua”.

-Ogi nausikua?

-“Ogi nagusikua” dala maiorazgua.

-Bai, “ogi nausikua” esaten jakon lehen, ba, bat hiltzen zanian, eta elixan ez dakit nik zelan esaten zan, ogi nausikua itten jakon, ez dakit /eztakit/ nik maiorazkua izan edo [zerbait]. Ogi nausikua. Ta gero harek eukitzen eben bazkaixa. Eta gure aitta, ba, ni ezkondu ta gero hil zan nere aitta, eta harek be euki eben, euki giñuan, ba, hoixe, ogi nausikuoi elixan ta, ba, zer bi etaratzen zian, ez dakit ba nik zelan esaten jakuen be. Bi. Eta gero bazkaixa. Hemen tabernia euen. Oin be badao, ezta? Ba hortxe. Ez dakit zenbat lagun, ta bazkaixan erdixak mozkortzen zien. [...] “...bazkaixa” esaten jakon, “ondra bazkaixa”.

-“Ondra bazkaixa” zan hileta ostien, ezta?

-Bai, hileta ostekua, “ondra bazkaixa” esaten jakon horri. Eta jentiak, beinke, orduan, ba, batzuk mozkortuta be bai, ez dakitzu /eztakitzu/? Batzuk mozkortuta be bai, ta ba holan izaten zan lehen.

-Burrugarrik egoten zan?

-Ez, burrukaik ez dot uste, baiña... ba...!

## 2. Ogi Nagusikoen hiletak

- **Erref:** ELG-059/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

### Laburpena:

Ogi Nagusikoek hileta berezia izaten zuten.

## 3. Mutilekin dantza egiteagatik zigortu

- **Erref:** ELG-059/005
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

### Laburpena:

Kaleko mojen eskolan hasi zen zazpi urterekin. Gerraostean ere jarraitu zuen eskolan. Eskola eta dotrina erdaraz ikasi zituen. Eskolan dotrina irakasten zien abadeak. Mutilekin dantza egiteagatik zigortu egiten zituzten.

## 4. Ostiral goizeko meza

- **Erref:** ELG-059/006
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:12:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

### Laburpena:

Borrokan egiteagatik zigorra. Hilean ostiral batean, goizeko zortzietako meza entzutera etortzen ziren, baraurik. Gero Panaderokua tabernan gosaldtu eta eskolara joaten ziren.

## 5. Eskolako bazkaria

- **Erref:** ELG-059/007
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Eskolara bidean, zapi baten bildutako bazkaria esekita uzten zuen Kipulakoa izeneko etxean, bazkal orduan jatera etortzeko. Eguraldi hotzarekin, amak kafesnea jartzen zien botila batean, Kipulakoan berotuta hartzeko.

**6. Aixolako urtegiak ezkutatu zituen baserriak**

- **Erref:** ELG-059/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:52. **Bukatu:** 00:18:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

<p>Lau baserri hauek Aixolako urtegiaren urpean geratu ziren: Nafarkua, Aixola Behekua, Igutx eta Olakua. Euren soro eta zelai asko ere urperatu ziren orduan.</p>

**Transkripzioa**

-Esan dostazu Aixolako urtegiak etxe batzuk urpeian hartu zittuala.

Goguan daukazu izenak?

-Ba bat zan Nafarkua, ta beste bat Aixolabekua, ta beste bat zan Igutx.

Horrek hirurok, eta gero bestia zan Ola, Olakua. Horrek hartu zittuan urak.

-Noiz egin zan hori, urtegi hori?

-Hori urtegi xoi izango da hamabost bat urte bai.

-Barrixa da orduan.

-Bai.

-Baiña lau etxe azpira.

-Azpira. Gero harei pagau otsen.

-Baiña haren terrenuak eta zelai ta soro...

-Harek be bai. Gero basuak-eta geldittu jakuezenak han geldittu jakuezen.

Ta han Aixolabekua esan dotsunak han gorao ein eban , Aixolan beratxua txabola bat euken erak eta erak arreglau ta han in eben eren etxia.

-Etxetxua?

-Bueno, Eibarren dauke etxia baiña han bizi dia. Erak hor bizi dia, bai.

-Goguan izango dozu lehen zelakua zan umetan, hor zeren zelai ta soro ta asko edo basua zan gehixena?

-Bueno, baeukezen zelaixak eta be baeukezen zelaixak be. Eta soluak eta behintzat hartzen eben, laboria ta hartzen eben ta.

-Eta danak urpera.

-Urpera, bai. Gero ondo pagauko otsen, e.

-Bai baiña ha urpeian.

-Baiña harek urpian, bai, bai.

**7. Jolasak; 'Hijas de María' kongregazioa**

- **Erref:** ELG-059/011
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:22:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

#### **Laburpena:**

<p>Txirikilan, bale-baleka, pagoka, tortoloska, sokasaltoka eta diaboloa, umetako jolasak gogoratzen ditu. Kromotan karamelu paperekin jolasten zuten. <em>Hijas de Mar&iacute;a</em> kongregazioan egon zeneko betebeharrak eta zigorrak azaltzen ditu. Goizean 06:30eko mezara, eta arratsaldean bezperetara etorri behar izaten zuten kalera. Mutilekin dantza egitea debekatuta zegoen.</p>

### **8. Felisa artzain; Eibarrera esnearekin**

- **Erref:** ELG-059/013
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

#### **Laburpena:**

Eskolak bukatu eta baserrian geratu zen Felisa. Anaia zaharrena etxean geratu zen, baina beste anaiak lantegira eta ahizpak neskame joan ziren. Felisak ardiak jezten ere egiten zuen. Egunero Eibarrera joaten zen, bezeroei esnea banatzera. Astoa nola zaindu behar zen azaltzen du.

### **9. Ardiak mendian jetzi, eta gauzez etxera**

- **Erref:** ELG-059/015
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:28:17. **Bukatu:** 00:31:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

#### **Laburpena:**

<p>Astoa, ezer esan gabe, bezeroen etxe aurrealdean geratzen zen. Hamar bat behi eta idiak edukitzen zituzten baserrian. Beste 60 bat ardi ere bai. Mendiko Basobaltz txabolan ardiak jezten zituenean, marmitarekin gauzez bueltatzen zen etxera, mozoloen kantuekin beldurtuta. Bidean eskekoren batekin topo egiteak ere beldurtzen zuen. 16 bat urte zituen orduan.</p>

### **10. Goizetik gauera lanean**

- **Erref:** ELG-059/017
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:35:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

<p>Udazkenean, Felisa Eibartik bueltatzen zenean, basoan garoa ebakitzen zeudenei bazkaria eramaten zien. Felisak ere bertan bazkaltzen zuen, gero garo-lanetan jarduteko. Lana bukatu eta etxera bidean, artasorotik arto-azaoak eramaten zituzten, gero etxean zuritzeko.</p>

**11. Etxeko garbiketa emakumeen lana zen**

- **Erref:** ELG-059/018
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:35:08. **Bukatu:** 00:38:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena:**

<p>Baserriko lanetatik aparte, Felisak etxeko garbiketarekin ere laguntzen zuen. Igandean, sei eta erdietako meza entzun, eta etxera joaten zen garbitzera. Nahiz eta lixibarekin sukaldeko mahaia garbitu, aitik ez zuen gainean ezer jarriko, zamaua (mahai-zapia) jarri aurretik. Ogia ere era jakin batean jartzen zuen mahai gainean.</p>

**12. Gabonetan aitik ogia gordetzen zuen**

- **Erref:** ELG-059/019
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:38:54. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

**Laburpena:**

<p>Aitik Gabon egunean ogia gordetzeko ohitura zuen. Ogiaren mutur bat sukaldeko komodan kutxa batean gordetzen zuen hurrengo Gabonak arte. Ogia ez zen hondatzen. Gabon egunean ateratzen zen, eta beste ogi mutur bat sartu hurrengo Gabonak arte gordetzeko.</p>

**13. Azaoarekin batera, sugea jaso zuen**

- **Erref:** ELG-059/020
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:40:52. **Bukatu:** 00:44:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Narrastiak

**Laburpena:**

<p>Garia ereiteko egin behar ziren lanak azaltzen ditu. Garia ebaki eta azaoak nola lotzen zituzten kontatzen du. Behin azaoarekin batera, suge bat jaso zuen besora. Haren hoztasuna oraindik gogoan du. Harrezkero ez zuen gehiago azaorik lotu.</p>

**14. Garia jo, garbitu eta kutxara**

- **Erref:** ELG-059/021
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:44:44. **Bukatu:** 00:47:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena:**

<p>Gari-azaoak metatu, lehortzeko zabaldu eta gero jo egiten ziren. Gasolina motordun matxaka makina zuten Aixola baserrian garia jotzeko. Etxekoen artean jotzen zuten etxeko garia. Garia garbitu ondoren, kutxan gordetzen zen.</p>

**Transkripzioa**

-Gero hori garixori etxera ekarten zeenian jo zela eitten zeen?

-Gero hori garixori metatu eitten zan, metak. Eta egualdi ona euanian ba han metatik zabaldu danak. Gure etxian euen makina bat elektrikua.

-Elektrikua? Matxakia edo?

-Matxakia. Han sartzen zan...

-Elektrikua entxufiak in?

-Motorra, motorra. Gasolinia uste dot zala.

-Gasoleua edo...

-Bai, bai, holako zeozer zan, bai. Ta ha martxan, ha martxan, ha martxan eta han sartu. Hauts bat! Ganbaran itten zan, eta (nik ez, ez nik ez dot han sartu sekula), baiña han sartzen ebizenak hak bestiak botatzen zittuen eta guk tolostu ein bihar izaten giñuzen.

-Lasto dana tolostau...

-Tolostauta ipini. Hemen makinia, ezta, eta harek bota itten zeban hara. Han ebillenak hara botatzen zittuan, eta guk hartu eta tolostu.

-Gari joten etxequak bakarrik ibiltzen ziñain edo?

-Bai, guk e, iñoiz baten bat igual baiña jeneralian etxequak bakarrik gu egoten giñan.

-Eta zure denpora danian matxakia euki zebein ala gero ha gari joteko makinia burdixakin ekarten zana be ibili zebein, lastua kamarara botatzen ebena ta?

-Ha, garixa garbitzekua?

-Haize-errotia ez. Matxakian hurrengo basarri askotara etorri zan gari joteko makinia.

-A, auzuan ibiltzen zana.

-Hori da.

-Ez, guk ez.

-Ez zebein ibili hori?

-Hori ez guk, etxekua bakarrik.

-Beti matxakia?

-Bai, etxequakin bakarrik. Ta gero ha garixa garbittu beste makina batekin.

-Haize-errotiaz.

-Bai.

-Ta gero haize-errotiak in garbittu ta garixa nun gordetzen zeen?  
-Kutxetan. Kutxak eren ta hantxe gordetzen giñuan.

## 15. Gaztagintza Aixola baserrian

- **Erref:** ELG-059/022
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:47:01. **Bukatu:** 00:50:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

### Laburpena:

<p>Amak gaztak gazura galtzeko karnetan jartzen zituen. Lehortzen zirenean kolorea ematen zieten, armairu zahar baten barruan ketuta. Armairua atarira ateratzen zuten ketze lanerako. Gazta eskuz prentsatzten zen. Artesnea saldu ere egiten zuten Eibarren, gatzatuak egiteko.</p>

## 16. Gerrako frontetik gertu zegoen Aixola baserria

- **Erref:** ELG-059/024
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:50:25. **Bukatu:** 00:53:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

### Laburpena:

<p>Gerra denboran, frontea ez zuten etxetik urruti izan. Bonba batzuk etxetik gertu lehertu ziren, eta leihoetan koltxoak ipini zituzten, balak gelditzeko. Nazionalak Elgeta hartu zutenean, milizianoek atzera egin zuten eta Aixola baserri ondolik pasatu ziren. Hildako asko egon omen zen. Hildakoak (ezezagunak) lurperatu, hilobiari gurutzeta jarri eta ahaztu egin zituzten.</p>

## 17. Milizianoak etxera taloak jatera

- **Erref:** ELG-059/025
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:53:24. **Bukatu:** 00:55:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

### Laburpena:

<p>Felisak ez zuen seniderik galdu gerran. Milizianoak etxera etortzen zitzaizkien, taloak esnearekin hartzera. Etxean ez zuten nahikoa esne izaten milizianoak asetzeko. Eibarrera esnea eramaten jarraitu zuten. Etxean gerratik babes bila etorritako elgetarrak eta eibartarrak izan zituzten.</p>

## Transkripzioa

-Zuk seniderik galdu zenduan gerran?

-Ez.  
-Edo kartzelan euki edo?  
-Ez, ez dot euki.  
-Anaiak ez zien fan frentera?  
-Ez. Soldau bai, soldau fan zian, baiña kartzelaik eta ez da egon.  
-Eta zuk zer rekuedo daukazu gerrakua?  
-Rekuerdia horrek milizianuena daukat gurera etorten zian, ba hemen erela, ez dakitzu, ta gosia, ta gure ama, esaten otsen, taluak itten otsezen gure amak, eta esnia, taluakin esnia, ta gehixao itteko. Ta esnia geuk be bihar giñuan eta, Eibarrera be faten giñan esnioi eruatera ta, harei emotia be nahi, eta danendako... Baiña taluak, ni akordatzen naiz gure amak taluak ein eta taluak ein ta han jaten zittuen.  
-Ta zuek gerria hasitta gero be Eibarrera faten ziñain oindiok esnia eruatera?  
-Bai.  
-Baiña Eibarren kriston bonbardeua egon zan baiña.  
-Bai, baiña faten giñan, bai-bai.  
-Gerra denporan ez ziñain iñora fan?  
-Iñora be ez giñan gu fan. Gurian, gure baserri-etxian egon zian kanpokuak, Eibarkuak be bai.  
-Refujiauta?  
-Refujiauta.  
-Gordeta edo?  
-Bai, bai. Gordeta edo, han ibiltzen zien. Hemen Elgetako batzuk be bai.  
-Orduan jente asko etorri zan baserri-azotara ta.  
-Bai, bai. Ta gurian be mordua egon zien.  
-Ta zer zien, senidiak?  
-Ez, ez, senidiak ez zienak be bai.  
-Bezeruak edo?  
-Ez.  
-Etortzen zana.  
-Bai. Ezaunak edo.  
-Eta harek zer eitten eben?, lo eitteko kuartoik be ez zan egongo.  
-Bueno, batzuk e, bai. Ta harei dotorienak edo onenak emon eta etxeuak al dan moduan.

## 18. Abadea baserrira babes bila

- **Erref:** ELG-059/026
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:55:39. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

### Laburpena:

<p>Elgetako abade bat, bere bi arrebekin, babes bila joan zitzairen Aixolara. Abadea eta bere arreben hainbat kontu azaltzen ditu Felisak.</p>

## 19. Ogia egiteko labesua

- **Erref:** ELG-059/027
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:01:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

<p>Ogia egiteko, oinekin oreka eginda laguntzen zion Felisak amari. Legamia etxeko ogia zahartzen utzita egiten zuten. Opilak eta ogiak egiten zituen amak aste osorako. Artoak ere egiten zituen labesuan.</p>

## 20. Gerraostean alea ehotzeko komeriak

- **Erref:** ELG-059/028
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:04:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena:**

<p>Artoa eta garia zorroetan sartu eta astoarekin errotara eramaten zuten ehotzera. Gerraostean, errotak itxita zeudela, Angiozarko errota batera joaten ziren gauez, alea ehotzera.</p>

## 21. Elizako kanpai-jotzaileak

- **Erref:** ELG-059/029
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:04:23. **Bukatu:** 01:07:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak

**Laburpena:**

<p>Txerria hiltzen zutenean, urdai zati bat Udalean entregatu behar izaten zuten. Artoa eta garia ere eman behar izaten zituzten. Baserrietan hiltzen ziren txerrien hankak, herriko elizako kanpai-jotzaileek jasotzen zituzten, euren lanagatik ordain gisa.</p>

## 22. Abadea konjuruak egiten

- **Erref:** ELG-059/030
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:07:14. **Bukatu:** 01:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena:**

Abadea konjurua egitera etortzen zenean, lan askorik hartu gabe, etxeko arrautza eta gaztarik onenak eramaten omen zituen.

**Transkripzioa**

-Eta abadia etortzen zan, konjurua esaten jakon. Eta nundik itten eban? Hemen etxia ta hortxe. Gure amak harendako arrautzaik onenak ta gaztairik onenak. Ha etorten zan abadia, harek berak ez eban eruaten pisuik porsiakaso be, albuana eruaten eban pixuak eruatekua.

-Monagillua.

-Monagillua edo ez dakit zein izaen zan.

-Konjurua eitra abadia monagilluakin joaten zan.

-Bai bai.

-Klaro, monagillua eruaten eben gero gauzak ekartzeko.

-Bai ba. Harek zestua eruaten eban, eta zestora emoten otsan gure amak be, beste batzuk be ze ingo otsen ez dakit, arrautzaik onenak, ta beste gaztai bat be apartauta onena.

-Konjurua eitteatik.

-Bai.

-Eta konjurua eittera orduan sootara ta ez zan joaten.

-Bai zera. Etxe ondolik. Eta ur bedeinkatua bihar izaten zala, ur bedeinkatui ez baeuan txorrotik hartu ta "fir-fri-fri!" ta "ya esta". Horrek egixak dia, e!

-Bai, baiña txorrotik hartutakua bedeinkatu ingo eban, ezta?

-Bai, zeñek? Asike...

**23. Su eta ur bedeinkatuak**

- **Erref:** ELG-059/031
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:08:46. **Bukatu:** 01:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena:**

"Illua"ren (etxera eramaten zen bedeinkatutako sua) ohitura umetatik ezagutu du Felisak. Oraindik ere egiten dela dio. Ur bedeinkatua ere eramaten zuten etxera. Trumoiak jotzen zuenean, palakadatxo bat txingar ateratzen zen kanpora, eta bedeinkatutako ura botatzen zitzaion, ekaitza baretzeko.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-03-24*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com